

Fan Tastikoak

Eneko Amezketeta

- Errejidorea:* *Begira, ekipo, hauxe da kokapena.*
- Kameralaria:* *Ufa!!! Kale erdian?*
- Errejidorea:* *Bai, kalean gaude, baina hemendik ez da jende asko igarotzen.*
- Argitzailea:* *Zuk ez dakizu nolakoak diren fanak!!!!*
- Margaret:* *Ezinezkoa da!!!! Ez dugu inon bez argitaratu.*
- Fan hauek ezin dute jakin gaur beren idolo miretsia hemen izango dela.*
- Kameralaria:* *Honen fanek... dena dakite!*
- Argitzailea:* *Detektibe hutsak dira!*
- Kameralaria:* *Ez dakigu nola, baina jabetu egiten dira beren idoloaren mugimendu guztiez.*
- Errejidorea:* *Ba, oraingo honetan, ez da hori gertatuko.*
- Bestela gure zuzendari marmartiak akabatuko gaitu.*
- Argitzailea:* *Hala espero dut! Ospetsu honen izena entzun, eta milaka fan agertzen dira inguruan, begira:*
- Jus....*
- Errejidorea:* *Shhhhhhh!!!! Isildu zaitez!! Zer nahi duzu, hasi baino lehen lana galtzea?*
- Argitzailea:* *Barkatu!!!!*

Margaret: Goazen hemendik, gauzak prestatzera.
Tastika: Begira, begira, begira, hementxe da, lagunak!!!
Atika: Bai, Interneten ikusi dugun lekua da.
Tasia: Hemendik pasako da gure maitia!!!!
Farría: Gure heroia!!!!
Tastika: Gure jaïnkoa!!!!
Atika: Gure mutil katxarroa!!!!
Fanak: Oooo, gure Justin Birra, (abesten) Gu bai garela fan, Fan... Tastika, Fan... Atika, Fan... Tasia, Fan... Farría!!!!!!!!
Tasia: Kontuz!!!! Ez oihukatu, hemen gaudela ikusten badute, botako gaituzte.
Farría: Bai, neskak, oso isilak izan behar dugu.
Tastika: Hori da, oso isilak, mutu, hitzik ez....
Atika: Hantxe dator Justin!!!!
Fanak: Aaaaaaaaaa!!!!!!
Atika: Shhhhhh!!!! Neskak, hori al da isilak izatea? Gezurra da, ez dator inor!!!!
Tasia: Goazen ezkutatzera, ezin gaitu inor ikusi.
Farría: Begira hemen.
Lydia: GPSak dio hementxe dela.
Felipe: Oraindik ez dago inor, erabiliko dugu hartualdi bat egiteko.
Lydia: Ideia ona!!!!
Felipe: Prest? Ekin!!!!
Lydia: Arratsalde on, bihotzeko prentsa ikusle horiek.
Felipe: Barkatu!!!! Ez diot play-ri sakatu.
Lydia: Felipe, mesedez. Profesionala zara eta!!!!
Felipe: Bai, baina... Kamera berria da eta ez dut oraindik ondo kontrolatzen. Orain bai..... prest? Ekin!
Lydia: Arratsalde on, bihotzeko prentsa ikusle horiek. Gaur, hemen, gertaera sinestezin bat igaroko dugu...

Felipe: *Barkatu berriro, Lydia, egin horrela ilean.....*
Kirru bat utzi duzu orraztu gabe.

Lydia: *Orain bai?*

Felipe: *Bai, dena zuzen, kirru guztiak bere lekuan daude. Prest? Ekin!!!!*

Lydia: *Arratsalde on, bihotzeko prentsa ikusle horiek. Gaur, hemen, gertaera sinestezin bat igaroko dugu. Euskal Herriko kale hauek egoera hun-kigarria biziko dute.*

Felipe: *Lydia, zer bazkaldu duzu?*

Lydia: *Ai, Felipe, entsalada, zer ba?*

Felipe: *Letxuga zati bat utzi duzuhortzen artean.*

Lydia: *Ui!!!! Barkatu, Felipe, deia jaso dut eta ziztu bizian atera behar izan naiz etxetik, hortzak garbitu ezinik. Badago?*

Felipe: *Bai. Lasai, berriro grabatuko dugu. Prest? Ekin!!!!*

Lydia: *Arratsalde on, bihotzeko prentsa ikusle horiek. Gaur, hemen, gertaera sinestezin bat igaroko dugu. Euskal Herriko kale hauek egoera hun-kigarria biziko dute. Justin Birra zuzenean gurekin egongo...*

Fanak: *Aaaaaa!!!!!!!!!!!! Justin, Justin, I love you!!!!!! Aaaaaaaa!!!!!!!!!!*

Lydia: *Baina zer gertatzen da?*

Felipe: *Nortzuk dira ero hauek?*

Tastika: *Non dago gure Justin?*

Lydia: *Gu kazetariak gara. Oraindik ez dugu inor ikusi.*

Atika: *Alarma faltsua, neskak.*

Tasia: *Gordelekura itzuliko gara!!!!*

Felipe: *Baina zuek ezin zarete hemen egon!!!!*

Farria: Nola ez? Hau kale erdia da! —tira, ez da oso erdia baina kalean gaude—. Gu hemen gaude (pentsatzen du).....kartetan jolasten.

Fanak: Hori da!!!! Zer???? Ezin dugu, alaaaaa.....
pikutara joan!!!!

Felipe: Kontuz hauekin!!!! Halako fan zoroak edozer egiteko gai dira.

Lydia: Egia esateko, gu ere ez ginateke hemen egon behar.

Felipe: Kontuz, norbait dator!

Harribitxi: Laster, grabatzen hasi beharko dugu.

Beltzi: Hobe litzateke entsegu egitea.

Esti: Bai. Bestela, gero, zuzendaria haserretuko da, eta oso marmartia dela diote.

Trauki: Marmartia? Nor da marmartia?

Harribitxi: Ez zara ezertaz enteratzen. Zuzendaria da marmartia.

Beltzi: Jenio bizikoa dela esan nahi du.

Esti: Ongi da ba, jarri musika.

Trauki: Nik jarriko dut..... (jausten da) Ai!!!!

Harribitxi: Neska, baina!!!!!! Dantzaria izateko nahiko traketsa zara, ezta?

Beltzi: Min hartu duzu?

Trauki: Ez, lasai, ondo nago.

Esti: Adi ba!!!! Lekuak hartu! (Play)

Koreografia barregarria.

Tastika: Baina nortzuk zarete zuek?

Harribitxi: Ez barkatu, gu hemen lanean ari gara.... Nortzuk zarete zuek???

Atika: (Pentsatuz) Eeee... kartetan ari garen neska batzuk.

Esti: *Bai zera! Kartetan? Hemen? Kale erdian?*
 Tasia: *Tira... kale erdi-erdian ere ez gaude.*
 Trauki: *Dantzariak gara, Justin Birrarenak.*
 Fanak: *Aaaaaaa!!!! Justin, we love youuuuuuuuu!!!!*
 Esti: *Ikusten? Zuek ez zaudete hemen kartetan jolasten. Zuek fan zoroak zarete.*
 Farria: *Tira, bai, baina hemen egoteko eskubidea daukagu.*
 Beltzi: *Hori zuzendariari azaldu. (Dardarka) Oso marmartia da eta hemendik dator.*

Fanak ezkutatu egiten dira.

Zuzendaria: *Baina zer da iskanbila hau? Eta zer egiten duzue hemen? Horrela, geldirik? Horretarako ordaintzen dizuegu?!*
 Trauki: *Tira ba, ez dugu asko kobratzen! (Estik kolpea ematen dio)*
 Zuzendaria: *Nola? Gutxi iruditzen zaizue? Egiten duzuen dantza kaskar horrengatik?*
 Harribitxi: *Edo, alderantziz ikusita: kobratzen dugunagatik ez dugu zertan hobeto egin.*
 Zuzendaria: *Baina zer da hau!!! Hau bai errespetu falta!!!! Ikusiko dugu nola egiten duzuen, eta espero dut akats bat bera ere ez izatea.*
 Esti: *Barkatu, zuzendari, ondo baino hobeto aterako da.*
 Beltzi: *Bai, zuzendari, barkatu. Askok entseatu dugu honetarako.*
 Zuzendaria: *Hobe duzue horrela izatea. Ez daukat denbora galtzeko gogorik. Non dago makillatzailea?*
 Margaret: *Hemen nago, zuzendari.*
 Zuzendaria: *Makillatu lau hauek, ea aldatzen dituzun*

puzker-aurpegi horiek. (Estik Harribitxiren

ahoa ixten du)

Harribitxi: Baina zer uste du horrek? Edozein modutan tratatu al gaituela?

Margaret: Badakizu nolakoa den.

Beltzi: Niri beldurra ematen dit.

Trauki: Beltz, zuri denak ematen dizu beldur. (Irristatu egiten da)

Denak: Kar-kar-kar-kar!

Beltzi: Eta zuk, Trauki, denbora gehiago ematen duzu lurrean, zutik baino.

Margaret: Lasaitu danak. Laister Justin Birra helduko da.

Fanak: Aaaaa!!!! Justin, I love you very very much!!

Margaret: (Dantzari) Nondik agertu dira hauek?

Esti: Justinen fan zoroak dira, bere izena entzuten duten guztietan garrasika hasten dira.

Margaret: (Dantzari) Eta zuzendariak badaki hemen daudela?

Tastika: Eta zer egingo digu? Klean gaude, hemendik ezin gaitu inork bota.

Atika: Bai. Kaleak guztionak dira eta bertan libre gara.

Margaret: Beno ba, alkate batzuen ustez hori ez da guztiz horrela.

Beltzi: Eta gure zuzendaria edozein alkate baino askoz gogorragoa da.

Tasia: Ez da hainbesterako izango.

Farria: Zuzendari honek ez daki noraino iritsi daitekeen fan hauen indarra. (Abesten) *Gu bai ga-rela fan, Fan... Tastika, Fan... Atika, Fan... Tasia, Fan... Farria!!!!!!!*

Harribitxi: Nahiko da!!!! Zuek ez zarete inor. Hemen gu gara Justinen dantzariak eta, beraz, alde egin.

Tastika: *Ez gara hemendik mugituko. Harroputz halakoa!*

Margaret: *(Harribitxiri eutsiz) Goazen beste leku lasaiago batera makillatzera, mesedez. (Badoaz)*

Atika: *Zelako inbidia. Gu ere izan gintezke gure maitearen dantzariak.*

Tasia: *Ziur guk hobeto egiten dugula dantzan. Pasio gehiagorekin, behintzat.*

Farria: *Kontuz, norbait dator!!!!*

Zuzendaria: *(Mugikorretik) Bai, jauna, lasai egon, laster hasiko gara grabatzen. Profesionalak dira guztiak. Ez dugu denbora asko behar izango. Iragarkia primeran geratuko da. Ez izan ino - lako zalantzarik. Bai, Justin Birra heldu da jada.*

Fanak: *Aaaaaaaa!!!! Gure Justin, I love Justin!!!*
(zuzendariak deia mozten du)

Zuzendaria: *Baina zer demontre!!!! Nola jakin duzue hemen egon behar genuela?*

Tastika: *Non dago, non dago???*

Atika: *Justin Birra, maite zaitut!!!!*

Fanak: *Aaaaaaaa!!!!*

Zuzendaria: *Falta zitzaiguna!!!! Zoazte etxera, bestela...*

Tasia: *Bestela, zer?!*

Zuzendaria: *Zoratu egin naiteke!!!!*

Farria: *Zoratuta, zu? Zoratuta, gu!*

Zuzendaria badoa, eta aizkora batekin itzuliko da.

Fanak: *(Oihuka doaz) Aaaaaaaaaaaaaa!!!!!!*

Justin Birra sartuko da bere bi bizkartzainekin; ingurua begiratzen jarriko dira.

Zuzendaria: Arratsalde on, Justin jauna!!!
 Justin: Arratsalde on!!!! Hemen grabatuko al dugu?
 Zuzendaria: Bai, hauxe da lokalizazioa. Gustatzen zaizu?
 Oso dotore etorri zara, oso guapo, bai horixe....
 (Bizkartzainei begira) Nortzuk dira haiek?
 Justin: Haiek nire bizkartzainak dira. Ondo tratatu,
 nire bizitzaren parte garrantzitsua dira eta.
 Zuzendaria: Bai, noski!!! Baina zure bizkartzainak dira
 horiek? Ez dute bizkar asko zaintzeko itxurarik.
 Justin: Nola ez? Pitt and Bull dira. Aizu, Pitt, erakutsi
 zer egiteko gai zaren.
 Pitt: (Begirada bota eta mehatxu egiten dio) Grrrr!!!
 Zuzendaria: Bai, bai, horrek dezente beldurtzen du! Baina
 beste kilker hau?
 Justin: Uuuuu. Hau arriskutsuena da. Bull, eraso!!!!

Bullek bere teknika-erakustaldia egiten du.

Zuzendaria: Ongi, ongi. Bizkartzain onak direla ikusi dut.
 Tira ba, badakizu zer egin behar duzun, ezta?
 Justin: Gaietik azaldu didate. Baina zeri buruzkoa
 da grabatuko dugun iragarkia?
 Zuzendaria: Komuneko papera.
 Justin: Zer?
 Zuzendaria: Ipurdia garbitzeko papera, kaka egitekoa!!!!
 Justin: Baina hori ez didate azaldu!
 Zuzendaria: Zatoz nirekin, orain azalduko dizut.

Pitt & Bull bakarrik gelditzen dira. Begiradatxo batzuk egingo dituzte.

Bull: Aizu, Pitt!!
 Pitt: Zer, Bull?
 Bull: Bakarrik utzi gaituztela uste dut.

Pitt: Bai, Bull, hala dela uste dut.
Bull: Eta zer egingo dugu orduan, Pitt?
Pitt: Ba... zeozer asmatu. Oso aspergarria da horrela jarraitzea.
Bull: Eta... gure puzker RAPa jotzen badugu?
Pitt: Ideia zoragarria, Bull.

Puzker RAPa.

Pitt: Eta orain?
Bull: Ba, agian, utzi ahal genuke armairu itxura hau.
Pitt: Ba bai, hobe. Oso deserosoa da.

Apurtu egiten dute indartsu itxura.

Bull: Azazkal bat apurtu dudala uste dut, jope.
Pitt: Jo, zelako zorte txarra. Gero margozten dituzunean ez da bat ere ondo geldituko.
Bull: Ba ez; agian gelezko azazkal batzuk erosi beharko ditut.
Pitt: Honen ostean, ileapaindegira joan gaitezke, eta zuk azazkal berriak jartzen dituzun bitar-tean, nik permanentea egingo dut. Ezin dut gehiago ile hauekin.
Bull: Aaaaa, zein ideia ona! Ba hori egingo dugu, bai.
Pitt: Txatxi piruli!!!!
Bull: Juan pelotilla!!!!
Pitt: Kontuz, handik norbait hurbiltzen ari da.
Disimulatu.
Bull: Erne!!! Alfak Romeori, Alfak Romeori....
Pitt: Bai, Romeo; hemen Alfa. Zer berri?
Bull: Dena ongi doa kaiolatik?

Pitt: *Kaiola hutsik dago. Perikitoak alde egin du.
Libre!!!!*

Bull: *Ongi da, txanda eta moztu!!!!*

Talde teknikoa sartzen da, eta gauzak muntatzen hasten dira.

Kameralaria: *Ufffa, zelako usain txarra!!!*

Argitzailea: *Bai, egia da.*

Errejidorea: *Orain, Justin heldu denez eta zuzendaria laus-
engatzen ari zaionez, agian ez digu errieta egingo.*

Kameralaria: *Ez zaitez fidatu, halako izaerarekin edozein
unetan, ustekabeen harrapa gaitzake.*

Argitzailea: *Beno, guk gure lana egingo dugu, eta ea laster
bukatzen dugun.*

Errejidorea: *Hemendik plano ona lortuko dugu. Justin*

Birra hemen kokatuko dugu....

Fanak: *Aaaaaaa!!!! Justin, Justin, love, love!!!!*

Errejidorea: *Oh, oh!*

Kameralaria: *Zer esan dizugu?*

Argitzailea: *Hemen dira fan zoroak.*

Errejidorea: *Gure lana oztopatuko dute.*

Felipe: *Lydia, Justin datorren bitartean fanei egin-
dako elkarrizketa grabatu ahal dugu.*

Lydia: *Oso ideia ona. Arratsalde on neskek, galdera-
txo batzuk egin nahi genizkizueke. Posible al da?*

Fanak: *Baaaaaaaiiii. (Kamera aurrean biltzen dira
denak, protagonista izateko nahian)*

Felipe: *Ekin!*

Lydia: *Noiztik zarete Justin Birraren fan hutsak?*

Tastika: *Betidantik, bere lehenengo singela atera zuene-
tik, Zu eta ni, guau ze polita!!!*

Lydia: *Eta zergatik duzue hain gustuko?*

Atika: Oso guapoa delako. Bere begiak, bere irria,
bere ileaJustin, I love you so much!!!!

Lydia: Eta zer egingo zenukete Justinekin egoteagatik?

Tasia: Buaaaa, edozer egin dezaket, bere abestiren bat
dantzatzan egon lehertu arte!!!!

Lydia: Abestuko diguzue Justinen abesti baten zati-
txo bat?

Fanak: Berak maite ninduen
Nik bera ere bai
Oraindik oroitzen naiz
Bere begiez

Lydia: Oso ondo! Eta zer egingo zenuke Justin ager-
tuko ez balitz?

Farria: Ez esan hori, mesedez, ez dut imajinatu ere
egin nahi.

Fanak: (Negarrez) Mesedez, Justin Birra, etor zaitez,
ezin dugu gehiago itxaron. Ikusi behar zaitugu.

Justin Birra agertzen da zuzendariarekin batera. Pitt & Bull atzetik datoz.
Isilune bat.

Fanak: Aaaaaaa!!!! (Justin ikaratu egiten da;
neskak zorabiatu, eta konortea galtzen dute)

Zuzendaria: Oso ondo, hau da gure aukera. Pitt, Bull era-
man itzazue neska hauek hemendik urrun.
(Pittek eta Bullek jaramon egiten diote). Mar-
garet!!!!!!!

Margaret: Bai, zuzendari.

Zuzendaria: Makillatu Justin, laster grabatzen hasi behar
dugu eta.

Margaret: Ados!!!!

Justin: Margaret, Margaret.... Ezaguna egiten zait
zure aurpegia. Ezagutzen dugu elkar?

Margaret: Bai Justin! Las Vegaseko kontzertuan nik makillatu zintudan.

Justin: Aaaaa, Margaret Asthor.... egia da. Uuuuu, Las Vegas, gau zoragarria, hura.

Margaret: Itxi begiak. (Hautsak botatzen dizkio)

Justin: Mmmm, Margaret, zure makillatzeko teknika asko gustatzen zait.

Margaret: Itxi ahoa ere, mesedez..... Listo!!!

Zuzendaria: Ondo da. Hasiko gara grabatzen. Bakoitza bere tokira!!! (Lydia eta Felipe ikusten ditu)

Eta zuek, zer egiten duzue hemen?

Felipe: Erreportaje bat egiten ari gara.

Zuzendaria: Nola erreportaje bat? Noren baimenarekin? Hemen ezin zarete egon.

Lydia: Baina kalea guztiona da.

Zuzendaria: Norentzako egiten duzue lan?

Felipe: Deluxe programarako.

Zuzendaria: Ah, Deluxe.... Gorka Xabier Bazkezentzat... Tira, Gorka Xabi nire laguna da. Jar zaitezte izkina horretan, eta trabarik egin gabe, mesedez.

Felipe: Eskerrak, hemendik dena grabatuko dut.

Errejidorea: Dantzariak, zuen lekuetara!!!! Margaret, tokea, mesedez!!!!

Margaret: Listo!!!

Errejidorea: Neurtu argia!!!!

Argitzailea: Zuzen!!!

Errejidorea: Ongi da. Kamera, prest?

Kameralaria: Grabatzen!!!

Errejidorea: Adi, prest, aurrera!!!!

Argitzailea: Lehen sekuentzia, lehen plano, lehen hartualdia!!!! (Klak)

Justin: Baby, baby, baby uuuuuu

Bai leuna, leuna, leuna uuuuuu

Gozoa, zoa, zoa uuuuuu

Zu bai zarela atsegina aaa aaa

*Euskotex!!!! Zure ipurdiak ere Gorbeia-ko usai-
na izango du!!!!*

Zuzendaria: Moztuuuuu!!!!!! Baina non dago komuna?

Errejidorea: Hemen dago, zuzendari.

Zuzendaria: Justin, eser zaitez hor.

*Justin: Baina, baina, hau ez da nire mailako abeslari
batek egiteko papera.*

*Zuzendaria: Ez, papera hauxe da, papera. Zu zara iragarki
honetako aktorea, besterik ez.*

*Errejidorea: Oso ona da aukera hau. Begira, beste marka
horretako txakurtxoa zein famatu egin zen, komuneko papera alde batetik
bestera eramaten.*

Justin: Bai, baina ni abeslari ospetsua naiz!

*Errejidorea: Berdin dio. Aidak ere kaka egiteko Activia
iragartzen du, eta zuk horren bigarren atala iragarriko duzu.*

Justin: Egia da!!!! Ospe handiagoa lortuko dut honekin.

Errejidorea: Badago, zuzendari.

Zuzendaria: Ongi, goazen berriro.

*Errejidorea: Dantzariak zuen lekuetara!!!! (Trauki lurrera
jausten da) Margaret, tokea, mesedez!!!!*

Margaret: Listo!!!

Errejidorea: Neurtu argia!!!!

Argitzailea: Zuzen!!!

Errejidorea: Ongi da. Kamera, prest?

Kameralaria: Grabatzen!!!

Errejidorea: Adi, prest, aurrera!!!!

*Argitzailea: Lehen sekuentzia, lehen plano, bigarren har-
tualdia!!!! (Klak)*

Justin: Baby, baby, baby uuuuuu
Bai leuna, leuna, leuna uuuuuu
Gozoa, zoa, zoa uuuuuu
Zu bai zarela atsegina aaa aaa
Euskotex!!!! Zure ipurdiak ere Gorbeiako usai-
na izango du!!!!

Pitt & Bull eszenan sartzen dira.

Zuzendaria: Moztuuuuuuu!!!!!! Baina zer egiten duzue hor?
Pitt: Barkatu, uste genuen dantzari batek gure
Justin erasotu nahi zuela.
Bull: Bai.... mugimendu arraro bat egin du eta,
badaezpada, sartu gara.
Zuzendaria: Baina zoratu al gara?
Justin: Lasai, ez da berriro gertatuko.
Zuzendaria: Kokatu berriro!!!!!!
Errejidorea: Dantzariak, zuen lekuetara!!!!Margaret,
tokea, mesedez!!!!
Margaret: Listo!!!
Errejidorea: Neurtu argia!!!!
Argitzailea: Zuzen!!!
Errejidorea: Ongi da. Kamera, prest?
Kameralaria: Grabatzen!!!
Errejidorea: Adi, prest, aurrera!!!!
Argitzailea: Lehen sekuentzia, lehen plano, hirugarren
hartualdia!!!! (Klak)
Justin: Baby, baby, baby uuuuu
Bai leuna, leuna, leuna uuuuuu
Gozoa, zoa, zoa uuuuuu
Zu bai zarela atsegina aaa aaa
Euskotex!!!! Zure ipurdiak ere Gorbeiako usai-na izango du!!!!

Trauki lurrera jausten da.

Zuzendaria: *Moztuuuuuuuu!!!!!!*
Beltzi: *Trauki, ondo zaude?*
Trauki: *Orkatila bihurritu zait.*
Harribitxi: *Ikusten? Lurrean denbora gehiago egoten da.*
Esti: *Sendagilearengana eraman behar dugu.*
Zuzendaria: *Kokoteraino naukazue!!!!!! Atsedean hartuko dugu. 20 minutu barru hemen ikusi nahi zai-tuztet guztioi.*

Badoaz. Justin komunean eserita gelditzen da. Bizkartzainak on-doan ditu.

Felipe: *Lydia! Aprobetxatu Justineri galdera batzuk egiteko.*
Lydia: *Idea ona, Felipe.*
Felipe: *Ekin!!!!*
Lydia: *Kaixo, Justin. Nolatan ba iritsi zara halako lan bat egitera?*
Justin: *Nire bizitzak porrot egin du!!!*
Lydia: *Oh, Justin, ez esan hori!!!*
Justin: *Bai, begira nazazu. Atzo lehen postuan nengoan, eta gaur, begira... komunean eserita.*
Lydia: *Baina lana da! Lehenengo euskal komuneko paperaren iragarkia.*
Justin: *Bai!!! Nork sinestuko du, paper honek Gorbaiako usaina utziko dizula?*
Lydia: *Zure fan guztiek sinestuko dute.*
Justin: *Zeintzuk? Lau zoro horiek? Lehen milaka fan nituen, eta orain, begira, lau besterik ez, eta akabatu ditut!!!*

Lydia: Konortea galdu dute. Laister hemen egongo dira berriro, zu miresten.

Justin: Zure lana aldiz, duina da.

Lydia: Ez uste. Egunero ospetsuen atzetik gabiltza. Gehienekin, gainera, borrokan.

Felipe: Bai, niri hamaika aldiz apurtu didate kamera, eta ulertzen ez dudan hau eman didate. Lydia, uste dut ez dudala ezer grabatu.

Lydia: Benetan???? Ai ama!!!! Beno, goazen kafetxo bat hartzera.

Musika batekin Pitt & Bull misteriozuki desagertuko dira.

Tastika: Hemen gaude berriro.

Atika: Guztiz indartuta.

Tasia: Gure maiteari esker, pilak kargatuta.

Farria: Eta gure eginkizuna betetzera etorri gara.

Fanak: Gu bai garela fan, Fan... Tastika, Fan... Atika, Fan... Tasia, Fan... Farria!!!!!!!!

Tastika: Kontuz, norbait dator!

Atika: Goazen gure gordelekura.

Ezkutatzen dira. Trauki herrenka sartuko da, Beltzik eta Estik lagunduta. Harribitxi atzetik dator.

Harribitxi: Ganora honekin ez gara inora helduko.

Beltzi: Utziozu, estropezu egin du eta.

Harribitxi: Estropezu? Bere bizitza osoa da estropezu bat!

Trauki: Jo!! Ez da nire errua izan.

Esti: Nahikoa da, neskak. Zuzendaria ez da honekin konturatu behar.

Beltzi: Saio bat egingo dugu, ea nola ateratzen den.

Entsegua egiten duten bitartean fanak atzetik dato, eta bahituko dituzte, zakuetan sarturik.

Dantzariak: Aaaaaa!!!! Lagundu!!!!!! Utzi!!!! Sokorro!!!!
Errejidorea: 20 minutuak pasa dira, gure onerako puntua lak izan behar dugu.
Kameralaria: Bai, zuzendaria nahiko haserre dago.
Argitzailea: Nahiz eta gure errua ez izan, beti gurekin ordaintzen du.
Margaret: Non dago Justin?

Justin, bizkartzainekin, Feliperekin eta Lydiarekin sartuko da.

Justin: Hemen nago!
Margaret: Azkeneko ukitu bat emango dizut.
Errejidorea: Zoazte gauzak prestatzen.
Zuzendaria: Ongi da, espero dut oraingoan bukatzea. Prest!!!
Errejidorea: Eta non daude dantzariak?
Zuzendaria: Zer? Dantzariak falta dira?
Fanak: Ez!!! Hemen gaude (kokatzen dira)
Margaret: Baina zer egin duzue 20 minutu hauetan?
Makillaje guztia galdu duzue.

Arineketan makillatzen ditu.

Errejidorea: Neurtu argia!!!!
Argitzailea: Zuzen!!!
Errejidorea: Ongi da. Kamera, prest?
Kameralaria: Grabatzen!!!
Errejidorea: Adi, prest, aurrera!!!!
Argitzailea: Lehen sekuentzia, lehen plano, laugarren hartualdia!!!!

Klak.

Justin: Baby, baby, baby uuuuu
Bai leuna, leuna, leuna uuuuuu
Gozoa, zoa, zoa uuuuu
Zu bai zarela atsegina aaa aaaa
Euskotex!!!! Zure ipurdiak ere Gorbeiako usai-
na izango du!!!!
Zuzendaria: Moztuuuuu!!!! Hobeezina, bikaina, ederra!!!!
Azkenean lortu dugu. Lan ona, ekipo!!!
Errejidorea: Barkatu bain... dantzari hauek ez dira lehengoak
Kameralaria: Egia da!!!!
Argitzailea: Nortzuk zarete zuek, orduan?
Fanak: Gu bai garela fan, Fan... Tastika, Fan... Atika,
Fan... Tasia, Fan... Farria!!!!!!!!
Justin: (Pozik) Nire fan eroak!!!!
Lydia: Ikusten? (Feliperi keinua eginez)
Felipe: (Grabatzen) Ekin!!!!
Fanak: Aaaaaaa!!!! Justin Birra!!!! Gure heroia!!!!
I love you so much!!!!

Pitt & Bull erdian jartzen dira Justin babestuz, baina Justinek, poz pozik, autografoak sinatzen ditu.

Lydia: Zuzenean: Justin Birraren ondoan gaude. Beti bezala, Justinek jarraitzaile amorratu leialak izango ditu. Horrek esan nahi du Justinek osparean tontorrean jarraitzen duela.
Margaret: Geldi une batez!!!! Baina, orduan, benetako dantzariak non sartu dira?
Dantzariak: Mmmmmmmmmmm!!!! (eskuak eta hankak lotuta eta ahoak estalita, saltoka agertuko dira)

Zuzendaria: (Ahoak desestaltita) *Baina zer gertatu zaizue?*
Dantzariak: *Bahitu gaituzte.*
Errejidorea: *Nortzuk?*
Dantzariak: *Haiek.*

Isilune bat egingo da: Fanak, orduan, erdian jarriko dira eta...

Fanak: *Gu bai garela fan, Fan... Tastika, Fan... Atika,*
Fan... Tasia, Fan... Farria!!!!!!!

Orduan Justinen abestia hasiko da, eta denek dantzatuko dute.

Justin: *Baby, baby, baby uuuuu*
Bai leuna, leuna, leuna uuuuuu
Gozoa, zoa, zoa uuuuu
Zu bai zarela atsegina, aaa aaa
Denok: *Euskotex!!!! Zure ipurdiak ere Gorbeiaiko usai*
na izango du!!!!

Pitt & Bull, goresturik, PuzkerRAPa egiten hasiko dira berriz ere.
Orduan, usain txarra dela eta, desagertzen joango dira denak.

